

Hastear da kooperatiben kudeaketari buruzko doako 'online' MOOC ikastaroaren hirugarren edizioa

2017/05/08

Maiatzaren 10ean hasiko da Mondragon Unibertsitateak eskaintzen duen kooperatibismoari buruzko hirugarren MOOC ikastaroa: Kooperatiben kudeaketarako gakoak: Arrasateko esperientzia. Ekainaren 20ra arte, interesatuek 4 moduluko prestakuntza jasoko dute online eta doan.

Ikastaroen moduluek honako gaiak jorratuko dituzte:

1. Ekonomia sozial eta solidarioa XXI. mendean.
 2. Arrasateko kooperatiba esperientzia.
 3. Ekonomia sozial eta solidarioko erakunde eta enpresak era eraginkorrean kudeatzeko zenbait gako.
 4. Gizarte eraldaketa prozesuetan, hezkuntzak jokatzen duen funtsezko papera
- **Izen-ematea:** Kooperatiben kudeaketarako gakoak: Arrasateko esperientzia
 - **MOOC ikastaroak sare sozialetan:** bloga, Twitter eta Facebook.

Aurtengoa da hirugarren aldia Mondragon Unibertsitateak eskaintzen dituen MOOC ikastaroak (*Massive Online Open Course*). Euskaraz, *Online Ikastaro Ireki Masiboa*).



Maiatzaren 10ean hasiko da kooperatibismoari buruzko doako ikastaroa.